Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2023-07-18
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2023-07-26
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00113/2023 - Data/Fecha: 2023-07-26
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-07-26
GZko 19.gaia onartuta - Aprobado, asunto 19) de OD

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 14ko 24/2023 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartu ziren (Lan Berri, 2023ko ekitaldia).

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 24/2023, de 14 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2023.

I

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2023ko martxoaren 14ko Erabakiaren bidez, 24/2023 Dekretua onartu zen. Dekretu horren bidez, 2023ko ekitaldirako Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartu ziren (Lan Berri).

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia de 14 de marzo de 2023, se aprobó el Decreto 24/2023, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2023.

Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko foru diputatuaren ekainaren 26ko 03353/2023 Foru Aginduaren bidez, martxoaren 14ko 24/2023 Foru Dekretuaren, II. tituluaren eta III. tituluaren babesean ematen diren laguntzak egozten zaizkien aurrekontu-izendapenak birbanatu ziren.

Mediante Orden Foral de la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad 03353/2023, de 26 de junio, se redistribuyeron las consignaciones presupuestarias a las que se imputan las ayudas que se concedan al amparo del Decreto Foral 24/2023, de 14 de marzo, Título II y Título III.

Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko foru diputatuaren uztailaren 3ko 03619/2023 Foru Aginduaren bidez, martxoaren 14ko 24/2023 Foru Dekretuaren babesean (I. titulua) ematen diren laguntzak egozten zaizkien aurrekontu-izendapenak birbanatu ziren.

Mediante Orden Foral de la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad 03619/2023, de 03 de julio, se redistribuyeron las consignaciones presupuestarias a las que se imputan las ayudas que se concedan al amparo del Decreto Foral 24/2023, de 14 de marzo, Título I.

II

24/2023 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak, kredituari dagokionez, 4. atalean xedatzen du, 43. artikuluan 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera ezarritakoaren babesean, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoa 1.000.000 euroko gehieneko zenbateko gehigarri batean handitu ahal izango dela, honako kasu hauetan:

La Disposición adicional única del Decreto Foral 24/2023 y en lo que se refiere al crédito, dispone en su apartado 4º, que al amparo de lo establecido en el artículo 43 conforme al artículo 43 del Decreto foral 34/2010, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 1.000.000 euros, en los siguientes casos:

a) Kreditu-handitzeak, kreditu-sorrerak edo kreditu-gehitzeak onartzearen ondorioz kreditu erabilgarriak handitzen direnean, edo

a) Cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

incorporaciones de crédito.

b) Aurrez ebatzitako deialdietatik datorren zenbateko gehigarria dagoenean, deialdi horietarako aurreikusitakoa baino txikiagoa.

b) Cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

III

Diru-laguntzaren xedea kontuan hartuta, hasieran aurrez uste zena baino eskaera gehiago aurkeztu dela ikusita, honako aldaketa hau egin behar da aurrekontuetan:

Xedapen gehigarri bakarraren 4. apartatua aplikatuta, guztira 256.269,77 euro gehiago sartuko dira I. tituluko dagozkion kredituetan.
Zehatz esanda, 0904/G/241116/45100 partida ekonomikoa 2013/0048 proiektua 256.269,77 euroan gehituko da, 2023ko ekitaldian.

III

A la vista del objeto de subvención, del incremento del número de solicitudes respecto a las previstas inicialmente, se hace necesario realizar el siguiente movimiento presupuestario:

En aplicación del apartado 4º de la disposición adicional única, procede incrementar en un importe total de 256.269,77 euros los créditos correspondientes al Título I.
En concreto la partida económica 0904/G/241116/45100 proyecto 2013/0048 se incrementa en la cuantía de 256.269,77 euros, en el ejercicio 2023.

IV

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Halaber, genero-ikuspegia kontuan hartu da, bai hura egitean, bai aplikatzean, honako hauen arabera: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duena; 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta 141/2013 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, azaroaren 19koa, 4/2005 Legean aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dituena.

IV

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, se ha tenido en cuenta la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, conforme al Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, a la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y al Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

función del género prevista en la Ley 4/2005.

V

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

Horrenbestez, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.** *Aldatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 14ko 24/2023 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartu ziren (Lan Berri, 2023ko ekitaldia).*

Martxoaren 14ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 24/2023 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarra aldatuko da eta honela idatzita geratuko da:

1. Foru dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta hornituren kontura emango dira. Partida eta hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

I. TITULUA:
Partida: 0904/G/241116/43299 2013/0048
Urte anitzeko gastua: 218.738,34 euro
Zenbatekoa eta banaketa ekitaldien arabera:
2023. urtea: 188.483,33 euro
2024. urtea: 30.255,01 euro

Partida: 0904/G/241116/44300 2013/0048

V

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a iniciativa de la Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

DISPONGO

**Artículo único**. *Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 24/2023, de 14 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2023*

Modificar la disposición adicional única del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 24/2023, de 14 de marzo, quedando redactada como sigue:

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

TÍTULO I:
Partida: 0904/G/241116/43299 2013/0048
Gasto plurianual: 218.738,34 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 188.483,33 euros
Año 2024 30.255,01 euros

Partida: 0904/G/241116/44300 2013/0048

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Urte anitzeko gastua: 255.687,28 euro
Zenbatekoa eta banaketa ekitaldien arabera:
2023. urtea: 220.321,64 euro
2024. urtea: 35.365,64 euro

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Urte anitzeko gastua: 2.764.315,15 euro
Zenbatekoa eta banaketa ekitaldien arabera:
2023. urtea: 2.381.964,80 euro
2024. urtea: 382.350,35euro

II. TITULUA:
Partida: 0904/G/241116/43299 2013/0048
Hainbat urtetarako gastua: 17.621,55 euro
Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2023. urte: 14.978,32 euro
2024. urtea: 2.643,23 euro

Partida: 0904/G/241116/44300 2013/0048
Hainbat urtetarako gastua: 63.334,19 euro
Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2023. urtea: 53.834,06 euro
2024. urtea: 9.500,13 euro

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Hainbat urtetarako gastua: 1.548.841,98 euro
Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2023. urtea: 1.316.515,74 euro
2024. urtea: 232.326,24 euro

III. TITULUA
Partida: 0904/G/241116/42300 2013/0048
Hainbat urtetarako gastua: 90.000,00 euro
Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2023. urtea. 76.500,00 euro
2024. urtea: 13.500,00 euro

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Hainbat urtetarako gastua: 147.849,28 euro
Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2023. urtea. 125.671,88 euro
2024. urtea: 22.177,40 euro

2. Dirulaguntza hauetan, gehienez ere 5.106.387,77 euro eman ahal izango dira, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbatekoei doakiela, 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan

Gasto plurianual: 255.687,28 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 220.321,64 euros
Año 2024: 35.365,64euros

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Gasto plurianual: 2.764.315,15 euros
Importe y distribución por ejercicios
Año 2023: 2.381.964,80 euros
Año 2024 : 382.350,35 euros

TÍTULO II:
Partida: 0904/G/241116/43299 2013/0048
Gasto plurianual: 17.621,55 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 14.978,32 euros
Año 2024: 2.643,23 euros

Partida: 0904/G/241116/44300 2013/0048
Gasto plurianual: 63.334,19 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 53.834,06 euros
Año 2024: 9.500,13 euros

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Gasto plurianual: 1.548.841,98 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 1.316.515,74 euros
Año 2024: 232.326,24 euros

TÍTULO III
Partida: 0904/G/241116/42300 2013/0048
Gasto plurianual: 90.000,00 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 76.500,00 euros
Año 2024: 13.500,00 euros

Partida: 0904/G/241116/45100 2013/0048
Gasto plurianual: 147.849,28 euros
Importe y distribución por ejercicios:
Año 2023: 125.671,88 euros
Año 2024: 22.177,40 euros

2. El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 5.106.387,77 euros, y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto Foral 34/2010 en relación con los límites de las cuantías

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

xedatutakoaren arabera alda daiteke.

máximas.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako erakunde onuradunak egon daitezkeela, foru-dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapenak foru-dekretuan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Asimismo, la distribución entre los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo, por lo que en función de las solicitudes presentadas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este decreto foral podrán redistribuirse mediante orden foral entre las distintas líneas y partidas señaladas en este decreto foral, sin superar el límite global fijado.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea

Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar este decreto.

3. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

3. Los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que finalice el plazo de presentación de solicitudes. La modificación se hará mediante Decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, tendrá en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas y, en su caso, se deberá ampliar el plazo de presentación de solicitudes. Todo ello conforme al artículo 41.2 del Decreto foral 34/2010.

4. Halaber, 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoari 1.000.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkio gehienez, kasu hauetan:

4. Igualmente, conforme al artículo 43 del Decreto foral 34/2010, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 1.000.000 euros, en los siguientes casos:

a) Kreditu-handitzeak, kreditu-sorrerak edo kreditu-gehitzeak onartzearen ondorioz kreditu erabilgarriak handitzen direnean, edo

a) Cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o incorporaciones de crédito.

b) Aurrez ebatzitako deialdietatik datorren zenbateko gehigarria dagoenean, deialdi horietarako

b) Cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurreikusitakoa baino txikiagoa.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kredituaren erabilgarritasun-adierazpena egin beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

Zabaltze hori horretarako eskumena duen organoak baimenduko du.

inferior al previsto para las mismas.

La efectividad de la cuantía adicional quedará condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Dicha ampliación la autorizará el órgano competente para ello.

## AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

## DISPOSICIÓN FINAL

Disposición final única. *Entrada en vigor*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatua / La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TUC8-PP4F-ZMAQ-3PEG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus